



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Francisco Michelena Celayeta.
Jose Maria Michelena Erasun.
Ezekiel Loiarde Santesteban.
Imanol Baleztena Elizalde.
Leire Bazterrika Loiarde.

2017ko abenduaren 18an, 19:00etan, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ohiko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel Jose Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 Bilkuretako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartzen dira aktak.

2. 2018KO ZERGA ETA TASAK.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, aho batez erabakitzen da:

1. Honako zerga-tasa hauek onestea 2018 urterako:
 - Hirilurraren gaineko kontribuzioa: katastroko balio berri eta garbien % 0,36.
 - Landa-lurraren gaineko kontribuzioa: katastroko balio berri eta garbien % 0,505 mantentzen da.
 - Instalazio, eraikuntza eta obren gaineko zerga: obraren benetako kostu osoaren % 3 mantentzen da (exekuzio materialaren aurrekontua).
 - Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga: oraingo indize eta tasak mantentzen dira.

2. Ur banaketa eta saneamendua emateko eta zerbitzu egiteko tasak 2018 urterako:

2.1. Horniduraren eta saneamenduko kuota finkoak, hargune edo lotunearen tasak eta erabiltzaileak eskatuta alferrikako ikuskapenako tasa dauden prezioetan mantentzen dira.

- 2.2. Horniduraren kuota aldakorra:

-A-1 tarifa: Etxeko erabilerarako hornidura:

60 metro kubiko bitarte: 0,35 euro/m³.

61etik 80 metro kubiko bitarte: 0,45 euro/m³.

81etik 120 metro kubiko bitarte: 0,85 euro/m³.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

120 metro kubikotik goiti: 1,30 euro/m³.

-A-2 tarifa: hornidura kontratatuak, industrian eta merkataritzan erabiltzeko:

650 metro kubiko bitarte: 0,40 euro/m³.

651tik 2.000 metro kubiko bitarte: 1,00 euro/m³.

2001etik 5.000 metro kubiko bitarte: 1,43 euro/m³.

5.000 metro kubikotik goiti: 1,62 euro/m³.

-A-3 tarifa: ezkutuko ur jarioen ondoriozko kontsumoa: 0,11 euro/m³.

3. Auzolanetik libratzeko ordaindu behar den diru kantitatea mantentzea 2018 urterako: 50,00 euro ordaindu beharko da auzolan bakoitzeko.

4. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren gutxieneko kuoten gainean 1,05 indizea ezartzea.

5. "Zubietako Errota" izeneko ekomuseora sartzeko kuotak mantentzea 2018 urterako:

Helduak: 3,00 euro/lagun.

15 lagun baino gehiagoko taldeak. 1,50 euro/lagun.

Eskolako umeak, ikasleak eta erretiratuak: 1,50 euro/lagun.

Umeak, 8 urte bitartekoak eta taldean ez doazenak: dohainik.

6. Erabaki honek 2018ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra eta indarra izanen du aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

7. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki oholean argitara ematea, behar diren legezko ondorioak izan ditzan. Haren kontra egungo legeetan ezarritako errekurtsoak aurkeztu ahalko dira, (administrazioarekikoa edota aurretik eta aukeran, gora jotzekoa eta berraztertzea).

3. 2018KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA.

2018ko aurrekontu egitasmoa aztertu ondoren, aho batez erabakitzen da:

1. Hasierako onespina ematea 2018ko aurrekontu orokor eta bakarrari.

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Hau da aurrekontuaren laburpena:

DIRUSARRERAK:		EUROAK
1. Kapituluak.	Zuzeneko zergak:	68.500,00
2. Kapituluak.	Zeharkako zergak:	8.000,00
3. Kapituluak.	Tasak eta bestelako dirusarrerak:	23.100,00
4. Kapituluak.	Transferentzia arruntak:	136.670,00
5. Kapituluak.	Ondareko dirusarrerak:	19.220,00
7. Kapituluak.	Kapital transferentziak:	94.217,99
DIRUSARRERAK GUZTIRA:		349.707,99

GASTUAK:		EUROAK
1. Kapituluak.	Langileen lansariak:	61.880,00
2. Kapituluak.	Ondasun eta zerbitzuen gastuak:	65.562,14
3. Kapituluak.	Finantza-gastuak:	150,00
4. Kapituluak.	Transferentzia arruntak:	83.630,00
6. Kapituluak.	Inbertsio errealak:	136.985,85
7. Kapituluak.	Kapital transferentziak:	1.500,00
GASTUAK GUZTIRA:		349.707,99

Jarraian, 2018ko plantilla organikoa azterturik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 236. eta 271. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabakitzen da:

1. Hasierako onspena ematea 2018ko plantilla organikoari.

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

Hau da plantillaren edukia:

Funtzionarioak

1. Idazkaria. Maila: A. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Osagarriak: bateraezintasuna % 35,00; lanpostuko osagarria %



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

30,50. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa; jakite maila, EGA edo baliokidea (C1). Egoera: hutsik.

2. Kontu-hartzailea. Maila: B. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Doneztebe-Santesteban, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Administrazio Zerbitzuen Batasunaren menpe. Osagarriak: bateraezintasuna % 35,00; lanpostuko osagarria % 19,14. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa; jakite maila, EGA edo baliokidea (C1). Egoera: hutsik.

3. Zerbitzu anitzetako langilea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 20,79. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa; jakite maila, B1 edo baliokidea. Egoera: jardunean.

Lan-kontratudun finkoak

1. Administrari laguntzailea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 25,85. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa; jakite maila, EGA edo baliokidea (C1). Egoera: hutsik.

Funtzionarioen izenen zerrenda

Zerbitzu anitzetako langilea: Oinatz Asensio Santesteban. Maila: D. 3. gradua. Antzintasuna: 2004/06/26.

Administrazio araubideko kontratadunen izenen zerrenda:

Idazkaria: Miguel Jose Belarra Tellechea. Maila: A. 4. gradua. Antzintasuna: 1992/07/01.

Kontu-hartzailea: Aitor Navarro Aristorena. Maila: B. Antzintasuna: 2013/07/15.

Lan-kontratadunen izenen zerrenda:

Administrari laguntzailea: Amaia Ochandorena Mindegua. Maila: D. Antzintasuna: 2000/11/02.

4. ALTXADAKO ERREKURTSOA.

J.M.A.A. jaunak, M.A.B. andrearen izenean, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zuen Nafarroako Administrazio Auzitegian —17-02358 zenbakia—, Zubietako Udaleko Osoko Bilkurak 2017ko irailaren 26an emandako erabakiaren kontra, zeinaren bidez ezetsi baitzen katastro aldaketa.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Interesdunen epatzea egin da Nafarroako Aldizkari Ofizialeko iragarkiaren bitartez (239 zenbakiko NAO, 2017/12/15).

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea Nafarroako toki entitateen egintza eta erabakien inpugnazioari dagokion arloan garatzen duen Erregelamendua onesteko 279/1990 Foru Dekretuaren 12. artikuluan xedatuari jarraikiz, betiere 173/1999 Foru Dekretuak II. kapituluari eman zion testuaren arabera, aho batez erabakitzen da:

1. Administrazio-espedientearen kopia diligentziatua bidaltzea Nafarroako Administrazio Auzitegira.

2. Errekurtsoari buruzko txostena onestea eta Auzitegira bidaltzea.

5. ERAIKUNTZARI BURUZKO ORDENANTZA.

Eraikuntzari buruzko Ordenantzak itxiturak arautzen ditu 36. artikuluan. Ikusirik ez dituela egurrezko itxiturak aipatzen, itxitura mota hura sartzeari egokia iruditzen zaio Udalari eta horretarako Ordenantza aldatu beharra dago.

39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 133. artikuluan arautzen du herritarren parte hartzea lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran, eta ondoko hau ezartzen du:

“1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.

b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.

c) Arauaren helburuak.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.”

Aurrerago, artikulua 4. puntuko 2. paragrafoak dio: *“Arau-proposamenak jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik ez daukanean, xede dituen hartzaileei betebeharririk ezartzen ez dienean edo **gai baten alderdi partzialak arautzen dituen**ean, egin gabe utz daiteke artikulua honen lehenengo zenbakian araututako kontsulta publikoa.”*

Beraz, gai baten alderdi partziala arautu behar dela kontuan izanda, aho batez erabakitzen da kontsulta publikoa ez egitea.

Jarraian, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua xedatutakoa kontuan hartuz, aho batez (arauzko quoruma) erabakitzen da:



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

1. Hasiera batean onestea Eraikuntzari buruzko Ordenantzaren 36. artikulua eraldatu. Horrela bada, "itxiturak bisualki irekiak" izeneko atalari paragrafo hau gehituko zaio: **"Hiri-lurrean edota lur urbanizagarrian kokatzen diren baratze, soro eta laborantzako lursailetan egurrezko itxitura hauek baimendu ahalko dira: piketeak eta ohola horizontalean; piketeak bertikalean jarriak. Udalak eskumeneko boterea izango du itxiturak jartzeko baimenak ukatzeko, baldin eta haien kokapena edo ezaugarriak arriskua ekartzen dien gizaki zein animaliei."**

2. Jendaurrean jartzea espedientea 30 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Aditza ematea erabaki hau behin betikoa bilakatuko dela jendaurrean egon bizkitartean inork alegaziorik aurkezten ez badu.

6. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza:

- 2017/77 zenbakia, 2017ko urriaren 3koa, zeinean erabaki baitzen *Herriko Ostalua* ixteko ordutegia luzatzea *Euskararen Egunean*.
- 2017/78 zenbakia, 2017ko urriaren 4koa, zeinean erabaki baitzen baimena ematea A.D.i *Estalpea* erabiltzeko "*Dantza Luzea*" berreskuratzeko saioak egiten.
- 2017/79 zenbakia, 2017ko urriaren 4koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea T.O.ri 4 poligonoko 415 eta 419 patzeletako bideak garbitu eta txukuntzeko.
- 2017/80 zenbakia, 2017ko urriaren 4koa, zeinean erabaki baitzen baimena ematea Malerreko Mankomunitateari *jubiloteka* antolatzeke Eskolan.
- 2017/81 zenbakia, 2017ko urriaren 4koa, zeinean erabaki baitzen baimena ematea A.T.ri yoga ikastaroa emateko Eskolan.
- 2017/82 zenbakia, 2017ko urriaren 16koa, zeinean erabaki baitzen J.C.M.ren izenera eskualdatzea *Azkarateko* behi-ustategia handitzeko eta esnerako ardien ustategia legezatzeko jarduera lizentziak.
- 2017/83 zenbakia, 2017ko urriaren 18koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea P.S.i 2 poligonoko 146 partzelan dauden lurreko montoiak kendu eta lur berria zabaltzeko.
- 2017/84 zenbakia, 2017ko urriaren 19koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea A.M.ri 4 poligonoko 137 partzelan eraikitako etxea ur-hornidura sareari lotzeko.
- 2017/85 zenbakia, 2017ko urriaren 19koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea S.O.ri *Mindegia* etxeko teilatua konpontzeko.
- 2017/86 zenbakia, 2017ko urriaren 19koa, zeinean erabaki baitzen baimena ematea U.E.ri ludoteka zerbitzua emateko Eskolan.
- 2017/87 zenbakia, 2017ko urriaren 19koa, zeinean erabaki baitzen baimena ematea J.A.i zumba ikastaroa emateko Eskolan.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

- 2017/88 zenbakia, 2017ko urriaren 19koa, zeinean erabaki baitzen baimena ematea A.T.ri yoga ikastaroa emateko Eskolan.
- 2017/89 zenbakia, 2017ko urriaren 25ekoa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea J.M.E.ri *Xapakoa bordako* teilatua konpontzeko.
- 2017/90 zenbakia, 2017ko urriaren 25ekoa, zeinean erabaki baitzen M.P.B.ri ematea *Ximenea* etxea lehen aldiz erabiltzeko eta okupatzeko lizentzia.
- 2017/91 zenbakia, 2017ko urriaren 25ekoa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea E.D.i 2 metro karratuko oilategia jartzeko *Iribarrene* etxeko lursailean.
- 2017/92 zenbakia, 2017ko azaroaren 3koa, zeinean erabaki baitzen baimena ematea Nafarroako Gobernu Ingurune Naturalaren Zerbitzuari sasiak kentzeko lanak egiteko *Lotzabala 1 eta 2 eta Armeazkue* parajeetan.
- 2017/93 zenbakia, 2017ko azaroaren 6koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea M.J.ri *Olaseneko* sotoan zola berdintzeko 28 metro karratuko azalera eta egurrezko itxitura egiteko.
- 2017/94 zenbakia, 2017ko azaroaren 6koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea I.L.ri *Garaxenea* etxean aldatzeko leiho bat eta barruko ate bat.
- 2017/95 zenbakia, 2017ko azaroaren 6koa, zeinean erabaki baitzen P.S.i itzultzea fidantza; *Armeazkue* parajeetan oihan aprobetxamendua ateratzeko ordaindu zuen hura.
- 2017/96 zenbakia, 2017ko azaroaren 6koa, zeinean erabaki baitzen P.T.ren aurkako espediente zigortzailea bukatutzat ematea.
- 2017/97 zenbakia, 2017ko azaroaren 9koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea M.J.ri *Olasenea etxeko* beroketa-sistema zaharberitzeko.
- 2017/98 zenbakia, 2017ko azaroaren 17koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia iraungitzeko espedientearen hastapena; 2015eko maiatzaren 13ko Osoko Bilkuran eman zitzaion lizentzia M.E.I.ri, 20 metro karratuko egurtegia eraikitzeko 4 poligonoko 564 partzelan.
- 2017/99 zenbakia, 2017ko azaroaren 22koa, zeinean erabaki baitzen M. M.S.i itzultzea fidantza; *Alkadi* parajeetan oihan aprobetxamendua ateratzeko ordaindu zuen hura.
- 2017/100 zenbakia, 2017ko azaroaren 22koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea P.H.ri *Migalkonea etxeko* baratzako pareta zati bat konpontzeko.
- 2017/101 zenbakia, 2017ko azaroaren 22koa, zeinean erabaki baitzen baimena ematea A.D.i *Estalpea* erabiltzeko herriko dantza taldeko entseguak egiten.
- 2017/102 zenbakia, 2017ko abenduaren 1ekoa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea J.L.ri *Fermineneko bordako* behitegiko teilatua erreteiltzeko (4 poligonoko 863 partzela).

7. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Kantauriko Ur-Konfederazioak emandako Ebazpenak —2017ko irailaren 27koa, Malerrekako Mankomunitateari baimendutako ur-aprobetxamenduko ezaugarriak aldatu zituenak; 2017ko irailaren 27koa, A.S.ri baimena eman ziona *Albarrengo erreka* ura



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

aprobetxatzeko—; Nafarroako Gobernura bidali diren baso aprobetxamenduko baimen eskaerak —J.L.S. eta J.B.S.ena—; Natur Ingurunearen Zerbitzuko zuzendariaren 1140/2017 Ebazpena —sakabanaturiko zuhaiztia aprobetxatzeko baimena—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso aprobetxamenduko baimenak —J.L.L. eta J.M.ri—; Kulturako zuzendari nagusiaren 203E/2017, 206E/2017 eta 223/2017 Ebazpenak, zeintzuetan onetsi baitziren diru-laguntzak Zubietako Errotarako —funtzionamendurako, jardueretarako eta inbertsioak egiteko—; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali dituen Ustiapenen Erregistroan izandako mugimenduak —SAT Azkaratea eta J.C.M.ren altak—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak.

2. Alkateak hitza hartu eta gai hauek azaldu ditu:

- Etxebizitza babestuak.
- Ur-araztegia egin beharreko hobekuntzak.
- Zaborren Batzordea: lokal berria erosi da.
- ETB.

3. *Herriko Ostatua* itxita dagoela kontuan izanik, Udalak aukera eman nahi du herritarren batek irekitzeko inauteri egunetan. Horrela bada, aho batez erabakitzen da enkantera dei egitea baldintza hauekin:

- Enkantean parte hartu ahal izateko ezinbestekoa da Zubietako Biztanleen Erroldan altan egotea 2017ko abenduaren 18an.
 - Tabernako zerbitzua eman behar da gutxienez. Nahi izanez gero, sukaldea erabiltzeko aukera ere bada.
 - Irekitze egunak izanen dira 2018ko hiltzaren 25etik (osteguna) 31a arte (asteazkena), biak barne. Bete beharreko gutxieneko ordutegia, berriz, 10:30etatik goizaldeko 2ak arte.
 - 1.000 euroko fidantza jarri behar da. Fidantzak bermatuko ditu suertatu daitezkeen kalteen konponketak eta errentaren ordainketa. Kalteak ordaintzeko nahikoa izango ez balitz, falta den zenbateko guztia eskatuko zaio maizterrari, harik eta kalte guztiak ordaindu arte.
 - Ura eta argia Udalak ordainduko ditu. Gainerako gastuak, berriz, Ostalua hartzen duenak.
 - Hasierako prezioa: 400 euro.
 - Eskaintzak Zubietako Udaletxeko idazkaritzan aurkeztuko dira sobre itxi batean. Epea: 2017ko abenduaren 28ko 11:00ak arte.
- Bando bidez jakinaraziko da deialdia.

4. Aho batez erabakitzen da 500 euroko diru-laguntza ematea herriko gazte taldeari inauteriak antolatzeko.

8. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez da galderarik egin.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)
31746

Eta bertzerik ezean, 20:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.